

Poesia

Bi urtetako kronika fakultatiboa (2012-2014)
Joan Mari Irigoien

Elkar, 2015



Dena dela

BERRI BAT EMAN GURA DIGU Joan Mari Irigoienek bi urtetako kronika poetikoa eginez; bizitza badela disartria ere, hor dagoela jakin bai baina ikusten ez den gaixotasun kronikoa ere bai, eta are ezereza bera.

Hunkigarria, umoretsua, apalik ausarta, Joan Mari Irigoien ikusi dut Euskal Idazleen Elkartera sartzen bere zapiarekin eta ile zuriak aire girotuaren hari ikusezinetan eta, ikusi dut nola agurtu duten bulegokoez, ze agurtu ohi zuten benerazio eta halako nahitasun batez, non poemok irakurtzean ez dudan penarik sentitu: munduko gizonik indartsuenari jazarri zaio gaixotasuna. Delikatuki indartsua, inondik ere: “Baina badakizu nire artasun-neurriaren berri... / eta nola ibiliko naiz, bada, / ez dudana alardea egiten?”.

Hala bada, esan zuen Irigoienek barruntatzen zuen berria entzun zuenean: esklerosia. Eta hori abiapuntu, egin du urte biko kronika bat loratu egiten dena udaberriko historik gabeko okarana bezala. Liburu honek balorea dauka bere horretan, baina gainera finezia batez idatzia dago umore bihurtzen duena astuntasuna, eta umorea, berriz, lirika: “Herriko plaza jendez gainezka dago, / baina zu inoiz baino bakarrago sentitzen zara, / larriminak erbesteratua, /

eta ero batek bezala egiten duzu oihu: // *Arren eta arren: nor emango dit serotonina-lore bat...?*”.

Beraz lezio bat ere bada *Bi urtetako kronika fakultatiboa (2012-2014)*, eta irakurri ahala gogoeta egin dezake irakurleak giza kondizioaz, denboraren joanaz eta zelulen itzaltzeaz, heriotzaren etikaz. Ideiak ordenatu nahiko balitu bezala, bere buruari galdeztzen dio boluntarismo hutsaren eta halabehar gordinaren artean ba ote den zerbait humanoagoa. Zelan egin ihes minari, inkontzientzian erori barik? Oreka horren bilaketan ditu lagun aipatu dugun umore ironiko leuna eta eusteko determinazioa.

Iluntze honetan goiz bat dena izatez, Irigoien harrapatu dugu gauzei osterera ere begira-begira, une bakoitza lotzen eta harilkatzen benetan axola duten maindireak ikusteko: “Urte luzetan izan naiz idazle / eta idazle izaten jarraitu nahi dut, / ahal bitartean...”. Liburuko azken atalak dioen moduan, aski modu prosaikoan baina karga guztiarekin, *bizitzak aurrera darrai*. Eta esaldi single horrek esanahi osoa hartzen du bere ezpainetatik entzutean, artean Altzako zementuaren azpiko errekek betiko lez itsasora egiten ari direlarik. ■

Igor Estankona

Maddiola Nekazal Turismoaren



Aita Orkolaga 161, 20008 - (Igeldo) · Donostia - San Sebastián, Gipuzkoa ☎ (+34) 652 703 128 · info@agroturismomaddiola.com